



ELEKTRARIDE

## **KOSTUEN EGITURA**

Gure proiektua gauzatu baino lehen ezinbestekoa da gure kostuak zeintzuk eta zein motatakoak diren, hau da, aldakorrak ala finkoak identifikatzea. Gure kostuak zein motatakoak izango diren jakiteko, lehenik eta behin garrantzitsua izango da gure kostuak zeintzuk diren jakitea.

Alde batetik, kostu finkoak beti berdinak direnak dira, alegia, gehiago zein gutxiago ekoiztuta beti berdina ordaindu behar direnak. Kostu aldakorrak aldiz, enpresaren jarduera-mailaren arabera edo ekoizpenaren arabera aldatuz doazten kostuak dira.

Gure enpresak izango dituen prezio finkoei dagokienez, gure soldata, bakoitzak dituen langile talde horien soldata, bankuan eskatuko dugun mailegua eta, aurretik aipatu dugun bezala, guk alokatuko dugun bulegoaren alokairua izango dira nagusiak. Alde batetik, gure soldata eta guk edukitako langile taldeen soldata finkoa mantendu nahi ditugu, bai seguritatearengatik eta bai konfiantzarengatik, hauek aldakorrak izanez gero, enpresa honetan parte hartzen dutenek haien soldata jeisteko arriskutan ikusi dezaketelako.

Horrez gain, nabarmena da soldata hauek, noski, enpresarien arabekoak izango direla, hau da, langile guztiek ez dute berdina irabaziko, enpresa sortzaileak garenok beste langileek baino gehiago irabaziko dugu. Bulegoaren alokairua bestalde, finkoa izango dela aurreikusten dugu, hilabetero berdina izango baita. Patineteak ordaintzeko bankuan eskatutako mailegua 45.000€ izango da eta hau interesarekin igo egingo da.

Prezio aldakorrei dagokienez, denboraren prezioa adibidez, aldakorra izango da, izan ere, denbora kopuruaren arabera izango da prezioa, geroz eta denbora gehiagoz erabili, geroz eta garestiagoa izango da erabilera minutuko. Horrez gain, oiartzoko ikasle izateagatik, deskontua izango da zerbitzua erosteko unean, horrela, gazte gehiago animatuko ditugu parte hartzera.

Patineteak finkoak izango dira, nahiz eta aurrerago gehiago beharko bagenitu, gehiago erosiko genituzke, baina printzipioz, patinete kopuru bat erosiko da. Patineteentzat aparkalekuak ere finkoak izango dira, herrian zehar aparkaleku kopuru bat egongo da.



**ELEKTRARIDE**

Bestalde, eguzki plakei dagokionez, bertatik lortuko dugu patineteek erabili izateko behar duten energia, beraz horretan ez genuke dirua gastatu beharko, plakak jartzen, ordea, bai. Gainera, informatiko bat kontratatuko gugu, eta honek, kostu finkoa izango du soldata bat kobratuko duelako.

Kostu guzti hauek kontuan hartuta, argi dago gure zerbitzuak aurrera egiteko langile eta baliabide ugari beharko dituela. Hala ere, baliabide guzti hauetan gastatuko dugun dirua ez gaitu kezkatzen, kalkulatzen ditugun diru-sarrerak gastuak baino askoz handiagoak direlako, beraz, gure enpresak espero dugun bezala aurrera egiten badu, irabaziak lortuko ditugula ondoriozta dezakegu.